



|x0!



Izendatzen ez dena existitzen da. Zerbaitek edo norbaitek ez du izenda-tua izan beharrik existitzeko; aitortua izateko baizik. Aitortzen den hori bai-ta ikusia, baloratua, kontuan hartua. Eta hori oso garrantzitsua da gure prozesuetan aurrera jarraitu ahal izateko. Izendatzeak ulertzera eraman gaitzake, kudeatzera. Hitzak erabil-tzen ditugu gure errealitatea eta bes-teenak ulertzeko, besteekin harrema-netan jartzeko, garena erakusteko... Hitzek ulergarriago egiten gaituzte (ez beti). Bestalde, isiltasunak bakar-dadera garamatza, klandestinitatera. Eta ez pentsa esaten ez dena desage-rrarazten denik; isildutakoak zure ba-rruan jarraituko du, eta begiratzen ez baduzu, hurrengoei eta ondokoei pa-sako diezu. Isilarazi nahi duzun hori hor dago, zuk begiratu edo ez.

**Zenbat errealitate isiltasunera konde-
natuta? Zenbat bizipen ukatuta? Zen-
bat «ez hitz egin horri buruz»? Gal-
dera hauek bueltaka dabiltza; leku
batetik eta bestetik, gai honetara iritsi
naiz. Kurioso da bizitza, isiltasunean
egon diren bizipenak ateratzen ari
zaizkit, zaizkigu. Zeinen garrantzitsua
den aitortza: gertatu zena gertatu de-**

la esatea, balioa nabarmentzea eta ulertzea. Plano indibidualera eramanda ere, zeinen garrantzitsua den hori ere banaizela onartzea, ulertzea, gertatu zitzaidala onartzea.

Hain garrantzitsua baldin bada, zergatik jarraitzen dugu isiltzen eta isilarazten? Hobeto esanda, zertarako jarraitzen dugu isiltzen eta isilarazten? Uste dut mila erantzun posible dau dela; nik nireak botako ditut. Gertatutakoa ukatzeko isiltzen gara, mina ez sentitzeko, ardurarik ez hartzeko, aurrrera jarraitzeko, babesteko, ez sentitzeko, besteari min egiteko... Uste dut hasiera batean babesteko egiten dugula, kontakizuna zaintzeko, gure ingurukoak zaintzeko. Eta pixkanaka, gero eta zailagoa egiten zaigu hortik ateratzea. Errotonda erraldoi batean sartzen gara, eta ez dugu irteerarik ikusten. Isiltasuna gero eta handiagoa

eta pisutsuagoa bihurtzen da, astuna, eta harrapatuta geratzen gara. Babesten gintuena kartzela bihurtu arte.

Isiltasunaren kondena gogorregia da. Existentziak partekatzeak berezi-tiarazten gaitu, ulertuta eta elkartuta sentitzen gara. Ez badugu ulertzen eta ikusten gaituztenik sentitzen, oso zaila da behar bezain zoriontsuak izatea. Horregatik dira hain garrantzitsuak aitortza eskakizun eta aldarrikapenak. Erakutsi nahi dugun hori ez ezik, ezkutuan dagoena ere bagara, eta merezi duen lekua eman behar diogu horri ere. Plano indibidual zein kolektiboan (azken finean plano berdina dira), behar-beharrezko erreparazio prozesua dela esango nuke, eta asko daukagu egiteke.

Eta zuri, zer gustatuko litzaizuke
izendatzea? •

